



Osasuna Politika Guztietan

BATZORDE TEKNIKOA



Txosten
sektoriala **2019**

Ingurumena

2021eko martxoa



Euskadi, auzolana

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

OSASUN SAILA

DEPARTAMENTO DE SALUD

Eusko Jaurlaritzaren ingurumen-politikak karbono-isuri gutxiko, ekonomia berde eta zirkularreko eta herritarren ongizatearen oinarriak ezarriko dituzten ekosistema erresilienteak lortzeko konpromisoa hartu du.

Ingurumena zaintzeaz gain, Osasun Politika Guztietan Estrategiarekin (OPG) bat etorriz, herritarren ongizatean jarri du arreta.

41. KONPROMISOA. KARBONO GUTXIKO EKONOMIA LEHIAKORRA BULTZATU

1. EKIMENA. KLIMA ALDAKETAREN KLIMA ESTRATEGIA 2050 EZARRI.

Klima-aldaketak eragina du osasunaren gizarte- eta ingurumen-determinatzaileetan, hala nola, aire garbian, edateko urean, nahiko elikagai izatean eta etxebizitza seguru batean.

2050erako Klima Aldaketaren Euskadiko Estrategiak, 2015ean onartutakoak, honako helburu hauek ditu: "BEG isurketak murriztea, 2030erako gutxienez %40 eta 2050erako gutxienez %80, 2005ekoen aldean". Klima-aldaketara egokitzeari dagokionez, helburua da "Klima-aldaketaren aurrean euskal lurraldeak erresilientzia duela ziurtatzea".

2020an, Ingurumen Sailburuordetzak KLIMA2050 estrategia berrikusiko du. Arintze-helburuen anbizioa eguneratzeko berrikusiko da, UNFCCCren COP25ean adostutako irizpideekin lerrokatuta eta Europa mailan Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2020ko martxoaren 4ko erregelamendu-proposamenarekin ofizializatuta, 2018/1999 Erregelamendua (Europako Klimaren Legea) aldatzea ahalbidetuko duen esparrua ezartzeko. Funtsean, 2050erako karbono-neutraltasunaren helburua ezarri nahi da, oinarria 1990ean duen berotegi-efektuko gasen isuriak %50 eta %55 artean murrizteko bitarteko helburuarekin.

- **KLIMATEK: FROGAKETA-PROIEKTUAK ETA FOROA**

Euskal Autonomia Erkidegoan klima-aldaketara egokitzeko I+G, berrikuntza eta sustapen-proiektuak egitea sustatzeko laguntza-programa bat da KLIMATEK, eta 2050 Estrategiaren 2. helburuan (“Euskal lurraldea klima-aldaketaren aurrean erresilientea izango dela ziurtatzea”) ekarpen sendoa egiteko.”

P2019an argitaratutako KLIMATEK proiektuak:

- **EAEko udalerriek klima-aldaketaren kontraduten kalteberatasunaren analisia.** Horretan, bero-irlei, uholdeei, itsasoaren gorakadei eta nekazaritzako sektorearen lehorteari aurre egiteko kalteberatasunari buruzko udalerrri bakoitzeko berariazko informazioa izango da.
- **Euskadiko lurzoruen karbono edukiaren eta testuraren mapak.**
- **LURRADAPT EKINTZA: LAGen berrikuspenaren esparruan, lurralde-antolamenduko tresnak klima-aldaketara egokitzea.**
- **Itsas mailaren gorakadaren osagai klimatikoek Euskal Autonomia Erkidegoko itsasbazterrean duten inpaktuaren ebaluazioa.**



Klima aldaketara egokitzeko KLIMATEK proiektuak

- **KLIMA ALDAKETARA EGOKITZEKO GIDAK**

- **Erakundeentzako klima-aldaketara egokitzeko planak egiteko gidaliburua**
- **Zer-nola hobetu klima-aldaketarekiko erresilientzia Euskadiko udalerrietan. Donostiako eta Tolosako kasuak**

- **LIFE URBAN KLIMA**

Europar Batasunak onetsi egin du Urban Klima 2050 proiektua, klima-aldaketa arintzeko eta/edo klima aldaketara egokitzeko proiektu integratuen eremuaren barruan, Euskadiko Klima Aldaketaren Estrategia (Klima 2050) hiri-eremuan hedatzeko. Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila da proiektu honen buru, Ihobe Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoaren bidez.

Proiektu integratuek (IP dira ingelesezko siglak) lurralde-mailako klima-planak edo estrategiak gauzatzen dituzte. Urban Klima 2050 proiektu integratuak neurri estrategikoak jasotzen ditu, prozesua katalizatzeke eta konpromiso eta finantzaketa osagarriak mobilizatzeke, behar den garaian Klima 2050 Estrategia erabat gauzatzeko. Proiektuaren partzuergoa Euskal Herri osoko hogeit bat erakunde eta entitatek osatzen dute.

Parte-hartzaileen artean hiru foru aldundiak, EAEko 7 udal, 3 hiriburuetakoa, eta 4 udalerrri daude, maila anitzeko gobernantza-sare bat ezarri da, eta agerian geratu da eskala txikiko proiektuek klima-aldaketara egokitzeko politiken hedapenean duten garrantzia.

Osasunari dagokionez, ekintza hauek azpimarratu behar dira:

C.3.1. EKINTZA: KLIMA ALDAKETA OSASUN POLITIKETAN SARTZEA

Ekintza hau inplementatuta, Urban Klima 2050 eke ezagutza sakona bereganatuko du, bektoreek, hau da, tigre eltxoa bezalako gaixotasunen transmisoreek, eragindako gaixotasunei buruzko inpaktuei dagokienez. Ezagutza horrek egungo prebentzio-planetan klima-aldaketari buruzko etorkizuneko arriskuak sartzera ahalbidetuko duten tresnak eta adierazleak edukitzeko balioko du. Gainera, hiri-plangintzako ekimenek biztanleen osasunean eta bizi-kalitatean izan ditzaketen ondorioak identifikatuko dira.

Arduraduna eta parte-hartzaileak: BC3 / Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila eta Neiker.

Gutxi gorabeherako kostua: 628.312 €

Ekintzaren iraupena: 2019-2025

C.4.3. EKINTZA: MUGIKORTASUN IRAUNKORRA ETA OSASUNGARRIA

Ekintza honen helburua mugikortasun iraunkorragoa sustatzea da. Besteak beste, bizikleta elektrikoen sare publiko bat sortuko da Gasteizko hiri-inguruan, bai eta oinezkoentzako eta bizikletentzako bideen sistema bat ere lbarrangeluko udal-eremuan, Urdaibaiko Biosfera Erreserban.

Arduraduna eta parte-hartzaileak: Eusko Jaurlaritza-Urdaibai / Arabako Foru Aldundia.

Gutxi gorabeherako kostua: 968.391 €

Ekintzaren iraupena: 2019-2025



42. KONPROMISOA. EKONOMIA ZIRKULARRA BULTZATU

Materialen erabilera txikiagoaren helburua da gure ekonomiak lehengaien erauzketarekiko eta inportazioarekiko duen menpekotasuna murriztea, baita hondakinen sorkuntza murriztea ere. Ekonomia zirkularraren oinarritzko printzipioa da «Gehiago lortzea gutxiagorekin».

Produkzioan baliabide gutxiago erabiltzea funtsezkoa da gure ingurumena eta osasuna babeste aldera. Izan ere, aire-kutsatzaileen igorpenak murrizten ditu eta hondar-uren eta hondakinen isurketa murrizten du. Ekonomia zirkularrak ekoizpen garbia dakar berarekin: diseinuaren etapan substantzia toxikoen erabilera txikiago egin behar da, eta produktuak eta materialak zirkuitu itxian materialen kalitatea eta herritarren, langileen eta ingurumenaren osasuna arriskuan jarri gabe ibil daitezten.

Gizarte, zientzia eta teknologia eragileekin eta teknologia garbierekin, garapenean eta ezarpenean lan egiten ari diren industriekin elkarlanean ari da. Esparru honetan kokatzen dira ingurumen-arloan inbertsioak egiteko enpresei zuzendutako diru-laguntzak, inbertsioek beren izaera ekoberritzailea islatzen dutenean.

2020eko urtarrilaren 7an EUSKADIKO EKONOMIA ZIRKULARRERAKO ESTRATEGIA 2020 estrategia onartu da.

Ekonomia Zirkularra

1. EKIMENA. FORU ALDUNDIEKIN KOORDINATUTA, ZERGA-SISTEMA BERDEAREN TRESNAK PROPOSATU.

Euskadiko foru aldundiek Sozietate Zergaren kuotaren gainean ezarritako ingurumen-arloko kenkari fiskalak %15ekoa dira ingurumenaren hobekuntzari lotutako enpresa-proiektuetarako, eta %30ekoa, Teknologia Garbier Euskal Zerrendan jasotako ekipoetan egindako inbertsioetarako. Teknologia Garbier Euskal Zerrendak 92 teknologia zehazten ditu euskal industriarako, baliabideen eraginkortasunean eta ingurumenerako hobekuntzan oinarrituta.

Teknologia garbier euskal zerrenda

2. EKIMENA. HONDAKINAK BERRERABILTZEA, BIRZIKLATZEA ETA BALORIZATZEA SUSTATUKO DUTEN TRESNA EKONOMIKOAK BULTZATU.

• 2019. EKONOMIA ZIRKULARRA - TOKI-ERAKUNDEEI ZUZENDUTAKO LAGUNTZAK

Diru-laguntza programak udalentsat, mankomunitateentsat, beste toki-erakunde batzuentzat, toki-erakunde autonomoentsat, tokiko garapen agentzientzat eta tokiko merkataritza-sozietateentsat, hondakinen sorrera prebenitzeko, eta batik bat, jakiak alferrik ez galtzeko eta bio-hondakinak ez eragiteko ekintzak, hala nola:

- 1) Elikagaien alferrikako ez galtzea sustatzeko eta hori prebenitzeko mekanismoak ezartzea.
- 2) Sortzaile handien (dendak, ikastetxeak, bestelako gizarte-ekipamenduak...) materia organikoa gaika biltzeko sistemak, horien tratamendu biologikorako.

-
- 3) Hondakinak sortzeagatik ordaintzeko sistemak, gaika biltzen ez diren hondakinak ez sortzera eta gaikako bilketa sustatzera bideratutakoak.
 - 4) Gaika biltzen ez diren hondakinak ez ekoizteko lagungarriak diren sistemak ezartzea, errefusaren bilketan erabiltzailea identifikatuta, eta era konbinatuan biohondakinen atalean.
 - 5) Konponketa edo auto-konponketa sustatzen duten herritarrei zuzendutako negozioak edo sistemak.

Aurrekontuko zuzkidura: 250.0000 euro

 **2019. Ekonomia Zirkularra - Toki-erakundeei zuzendutako laguntzak**

• **ENPRESEI LAGUNTZAK INGURUMENEAN INBERTSIOAK EGITEKO 2019**

Ingurumena hobetzen lagunduko duten ekipo eta instalazioetan inbertitzeko laguntzen programa.

 **Enpresei laguntzak ingurumenean inbertsioak egiteko 2019. Prozedura sinplifikatua**

Enpresei laguntzak ingurumenean inbertsioak egiteko 2019. Prozedura arrunta

3. EKIMENA. HONDAKINAK PREBENITZEKO ETA KUDEATZEKO PLANA 2020 GARATU.

2020rako Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Plan honen helburua da Euskadin ekoizpen-zikloko eta kontsumo-zikloko fase guztietan hondakin-kopuru txikiagoa sortzea, horretarako, ekonomia zirkularren printzipio, estrategia eta ikuspegiak erabiliz. Prebentzio-programaren azken helburua da hazkunde ekonomikoaren eta hondakinen sorrerarekin lotutako giza osasunaren eta ingurumenaren gaineko inpaktuak bereiztea.

2020. urtean, INGURUMEN SAILBURUORDETZA Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Plan berriaren onarpena lantzen ari da (2021-2030).

 **2020rako hondakinak prebenitzeko eta kudeatzeko plana**

• **KONPOSTAJE KOMUNITARIOA**

2020rako Planaren alderdi garrantzitsuetako bat biohondakinen konpostajea da. Biohondakinak lorategietako eta parkeetako hondakin biodegradagarriak dira, bai eta etxeetako, jatetxeetako eta sukaldaritza-zerbitzu kolektiboetako eta txikizkako salmentako establezimenduetako elikagai eta sukalde-hondakinak eta elikagaiak prozesatzeko instalazioetako hondakin konparagarriak ere.

2019ko apirilean, **apirilaren 9ko 63/2019 Dekretua onartu zen, EAEko komunitateko konpostaje-instalazio eta jardueren araubide juridikoa eta baldintza teknikoak ezartzen dituena**, ingurumena eta pertsonen osasuna babesteko xedearekin.

Ondoren, **Euskadin komunitate konpostajea egiteko gida praktikoa** argitaratu zen, erreferentziako elementua, teknikariak, enpresak, erabiltzaileak, administrazio publikoak eta beste eragile interesgarri batzuk komunitateko konpostaje-guneen praktikan eta maneian orientatzeko.

Biohondakinak

• **ALTZAIRUGINTZAKO ZEPAK**

Historikoki, gure lurraldeko altzairu-fabriken kontzentrazio handia dela eta (Estatuarekin eta Europako gainerako herrialdeekin alderatuta), altzairugintzako zepak hondakin-korrante oso esanguratsua izan dira Euskal Autonomia Erkidegoan. Esaterako, 2016an, altzairugintzako zepak izan ziren bigarren hondakin garrantzitsuenak EAEn, sorkuntzari dagokionez; inbentarioan jasotako hondakinen guztizkoaren % 16 ziren.

Euskal Autonomia Erkidegoaren ingurumen-organoak jasotako datuek agerian uzten dute zepa horiek hondakindegira eramanez deuseztatzea ohiko kudeaketa modua dela, horrek ingurumen-inpaktu kaltegarriak eragiten dituelarik.

Gaur egungo garapen teknologikoak eta zepak balorizatzeko jardueren esparruan egin diren ingurumen-arriskuen ebaluazio-prozesuetan lortutako emaitza positiboek argi eta garbi frogatu dute agregakin siderurgikoak erabil daitezkeela eraikuntzaren sektorean eta zementuaren fabrikazioan, hala, horiek ordeztzen dituzten lehengaien erauzketatik eta horiek prozesatetik eta zabortelean deuseztatetik eratorritako ingurumen-inpaktuak murriztuz.

2019ko apirilean, **64/2019 DEKRETUA onartu zen, apirilaren 9koa, arku elektrikoko labeetako altzairugintzako zepa beltzak balorizatzeko jardueretarako araubide juridiko aplikagarriari buruzkoa**.

Ondoren, **Arku elektrikoko labeetako altzairugintzako zepak balorizatzeko jardueretarako eta ondoren agregakin siderurgiko gisa erabiltzeko dekretua aplikatzeko gida** argitaratu zen.

Altzairugintzako zepak

- **PAPER-LOHIAK**

Historikoki, kraft orea fabrikatzetik datozen kareharrizko lohiak hondakin-korrante garrantzitsua dira Euskal Autonomia Erkidegoko kudeaketa-problematikari dagokionez, EAEn kokatutako kraft orea egiten duten enpresetan sortzen diren hondakinen bolumen handia dela eta (urtean 110.000 tona inguru, Eusko Jaurlaritzaren 2018ko hondakin ez-arriskutsuen inbentarioko datuen arabera).

Hala, ekitaldi horretan, hondakin garrantzitsuenetan hirugarrena da autonomia erkidegoan, sorrerari dagokionez, eta %3ko ekarpena egiten du sortutako eta inbentariatutako hondakin ez-arriskutsu guztiei dagokienez. Horiek kudeatzeko lanari dagokionez, %85 ezabatu da, 2018an, zabortegian biltegitratuta.

EAEko Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko 2020ko Planaren jarraipenean, 2010etik 2018ra bitarte kareharrizko lohi horien sorrera %27 handitu dela eta balorizazio materiala %20 murriztu dela ikusi da, eta aipatutako aldea handitu egin da zabortegian biltegitratuta egindako kudeaketan.

2020ko martxoan, **aurretiatzko kontsulta publikorako** ireki zen hondakinak hondakindegietan biltegitratuta eta betelanak eginda ezabatzea arautzen duen 49/2009 Dekretua aldatzeko dekretu-proiektua; dekretu-proiektuaren xedea da orea eta papera fabrikatzean aipatutako hondakinak zabortegian biltegitratuta deuseztatzearen murrizketa estaltzea araudiaren ikuspegitik, balorizazio-jarduerak sustatuz eta giza osasuna eta ekosistemena babestuz, otsailaren 24ko 49/2009 Dekretuan jasotako hondakin balorizagarrien zerrendan sartuta.

43. KONPROMISOA. INGURUMENARI, KLIMA ALDAKETARI ETA NATURA ZAINTEARI BURUZKO LEGEA

1. EKIMENA. INGURUMENARI, KLIMA ALDAKETARI ETA NATURA ZAINTEARI BURUZKO LEGE OROKOR BATEN PROIEKTUA ONARTU, ARLO HONETAN DAGOEN LEGEDIA INTEGRATU ETA EGUNERATUKO DUENA, ISURKETEN MURRIZKETA-HELBURUAK JARRIKO DITUENA ETA KLIMA-ALDAKETAREN AURKAKO BORROKA BULTZATZEKO NEURRI ARAUTZAILEAK EZARRIKO DITUENA.

- **EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO INGURUMEN ADMINISTRAZIOARI BURUZKO LEGEAREN AURREPROIEKTUA**

Ingurumen arloko lege berriak, Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena Babesteko 3/1998 Legea ordezkatzeko duenak, Autonomia Erkidego mailan ingurumen-politika berritu baten oinarriak ezarri eta ingurumen-arloko erronka aldakorrei eta gizartearen eskaerei aurre egingo die.

Arauk pertsonak babestuko ditu ingurumen-presio eta -arriskuen aurrean, baliabideak eraginkortasunez kudeatuko ditu, klima-aldaketaren

eragina mugatuko du, erantzunkidetasun publiko eta pribatua bultzatuko du ingurumenaren babesean, ingurumen-arloko Administrazioaren funtzionamendua arindu eta sinplifikatuko du, eta ingurumenean eragina duten jardueretan esku hartzeko teknikak arautuko ditu.

Aurreproiektua 2019ko uztailaren 23ko Gobernu Kontseiluan onartu zen.

2019ko irailaren 6an aurkeztu zen ekimena Eusko Legebiltzarrean.

 ***Legebiltzarrean lege-proiektua izapidetzeko onartzea***
Legebiltzarreko agerraldiak

• **EUSKADIKO NATURA ONDAREA KONTSERBATZEKO LEGEAREN AURREPROIEKTUA**

Natura Ondarea Kontserbatzeko lege berriak apirilaren 15eko 1/2014 Legegintzako Proiektuaren bitartez moldatutako ekainaren 30eko 16/1994 Legea ordezkatu du, eta Autonomia Erkidego mailan babes, kontserbazio eta kudeaketa politika berrituaren oinarriak ezarri eta arlo honetan dauden erronka aldakorrei eta gizartearen eskaerei aurre egingo die.

Arauek, funtsezko prozesu ekologikoen eta oinarritzko bizi-sistemen jarraitutasunari eutsiko die, aniztasun biologiko eta geologikoa kontserbatu eta lehengoratu du, ekosistema naturalak kontserbazio-egoera egokian mantenduko ditu, basoko flora eta faunaren aniztasun genetikoaren eta populazioen kontserbazio-egoera egokian daudela bermatuko du, eta natura ondareko ondasun eta baliabideen erabilera iraunkorra ziurtatuko du, eta bereziki basoko espezieena eta ekosistemena.

Aurreproiektua 2019ko uztailaren 23ko Gobernu Kontseiluan onartu zen.

2019ko irailaren 6an aurkeztu zen ekimena Eusko Legebiltzarrean.

 ***Legebiltzarrean lege-proiektua izapidetzeko onartzea***
Legebiltzarreko agerraldiak

• **KLIMA ALDAKETARI BURUZKO EUSKADIKO LEGEAREN AURREPROIEKTUA**

Egun aurreproiektu fasean dagoen Klima Aldaketari buruzko Legearen helburua, gaur egun Euskal Autonomia Erkidegoaren mailan legeztatu gabe dagoen esparru bat arautzea litzateke.

Klima Aldaketa gaur egun gure gizarteak aurrez aurre duen ingurumen-erronka nagusietako bat da. Nazio Batzuen Klima Aldaketari buruzko Konbentzio Esparrua (NBKAKE), 1992. urtean sortutakoa, urtero elkartzen da Aldeen Konferentzien (AK) bitartez, fenomeno horri aurre egiteko nazioarteko akordioak sustatzeko helburuarekin, eta eragin handia du osasun publikoko etorkizuneko politiketan.

2019ko abenduaren 20an, lege-aurreproiektua alde zuzenetik onartzeko AGINDUA eman zen.

Lege-aurreproiektua geldituta dago XII. legegaldira arte, Ekonomia eta Ogasun Saileko Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren txosten-izapidean, Lehendakariaren otsailaren 10eko 2/2020 Dekretua onartu zelako. Dekretu horren bidez, Eusko Legebiltzarra desegin eta hauteskundeak deitu ziren.

Lege-aurreproiektuaren izapidetzea

44. KONPROMISOA. ENPLEGU BERDEA

Enplegu berdeek enpresen eta sektore ekonomikoen ingurumen-inpaktua murrizten dute, maila iraunkorragoetara iritsi arte. Energiaren, lehengaien eta uraren kontsumoa murrizten, ekonomia deskarbonizatzen eta berotegi-efektuko gasen emisioak murrizten, hondakin eta kutsadura mota guztiak gutxitzen edo erabat saihesten, eta ekosistemak eta biodibertsitatea babesten eta leheneratzen laguntzen dute.

Gutxiago kutsatzen duen ingurumen garbiago batek osasuna hobetu dezake.

1. EKIMENA. EKINTZAILTZA SUSTATU, INDARTZEN ARI DEN SEKTORE EKONOMIKO HONETAN, ENPRESA ETA ENPLEGU BERRIAK SORTZEKO AUKERA-ITURRI BIHUR DADIN.

• BASQUE ECODESIGN HUB

Euskadin ekodiseinuaren arloan egiten diren jarduerak biltzen dituen ekimena da Basque Ecodesign HUB. Bilbon du egoitza ekimenak eta Euskadiko unibertsitate eta lanbide heziketako zentro guztiei irekita dago, bai publikoak bai pribatuak.

Basque Ecodesign Huben ardatzak honakoak dira:

- Gazteei prestakuntza eskaintzea, bai ikasleei bai langabezia daudenei.
- Enprekin elkarlanean proiektu teknikoak garatzea, batez ere ETEekin.
- Euskadiko industria arloko enpresak eta bertako teknikariak gaitzea.
- Ekodiseinuari lotutako ingurumen ikerketa eta zaintzako sistema bat ezartzea Euskadin.
- Ekodiseinuaren eta ekonomia zirkularraren arloko ekintzaileak laguntzea.

Basque Ecodesign HUB

3. EKIMENA. IKERKETA ETA BERRIKUNTZA BULTZATU EKOBERRIKUNTZA-PROIEKTUEN, EKODISEINUAREN SUSTAPENAREN EDO UNIBERTSITATEAREKIKO LANKIDETZAREN BIDEZ.

- **EKODISEINUAREN, EKONOMIA ZIRKULARREKO FROGAPENAREN ETA EKOBERRIKUNTZAREN ALORREKO PROIEKTUETARAKO LAGUNTZAK. 2019**

EAEko industrian ekodiseinuko eta ekonomia zirkularreko proiektu berritzaileak egiteko laguntza-programaren helburua da industrian materialen efizientzia handitzea eta berrikuntzaren bidez produktuen iraunkortasuna eta ekodiseinua bultzatzea. Horiek dira 2030erako Euskadiko Ekonomia Zirkularren Estrategiaren funtsezko ardatzak.

 *Ekodiseinuaren, ekonomia zirkularreko frogapenaren eta ekoberrikuntzaren alorreko proiektuetarako laguntzak*

- **GIDARITZA-TALDEA EKONOMIA ZIRKULARREN BALIO-KATE OSOAREKIN**

Ingurumen Sailak, PCTI 2020 Planaren esparruan, gidaritza-talde bat koordinatzen du ekonomia zirkularreko balio-kate osoarekin. Hala, horren helburua da epe labur eta ertainean teknologia, negozioa, antolakuntza eta ezagutzaren garapenaren lehentasunei erantzuten dien jarduketan plan bat zehaztea eta abiaraztea, zehazki, sektore industrialen lehiakortasuna areagotzeko ingurumen-aldagaiaren bidez eta horrela maila globalean aurkeztu diren aukerak baliatzeko. Horrez gain, oinarri zientifikoa duen ezagutza sortu nahi da euskal administrazioarentzat, ingurumenarekin lotuta dauden politikak ezartzeko ardura duelarik.

- **MILURTEKOKO EKOSISTEMEN EBALUAZIOA EUSKADIN**

Sailak, halaber, Hitzarmen bat du Euskal Herriko Unibertsitatearekin UNESCO Katedrako taldeak "Milurtekoko ekosistemen ebaluazioa Euskadin" gaiari buruzko proiektua gara dezan; hau da, sistema naturalek, baliabideen hornidura-iturri gisa, ingurumenaren erregulazio-faktore gisa eta pertsonen ezagutza- eta gozamen-iturri gisa, gizakiaren ongizatean (zerbitzuak) zuzenean eta zeharka zenbateraino eragiten duten neurtzeko.

2019an, lanean jarraitu da hiri-azpiegitura berdeak tenperatura altuak moteltzeko duen gaitasunari dagokionez, Bilbon bero-bolada baten testuinguruan. Horretarako, Bilbon 33 °C-ko gehieneko tenperatura erregulatu ahal izateko behar den berdegune kantitatea kalkulatu da.

Gainera, Euskadiko berdeguneen eta osasun publikoaren arteko harremana landu da, berdegune azaleraren eta udalerrri bakoitzeko gaixotasunaren eta generoaren araberrako hilkortasun-arrisku erlatiboaren arteko korrelazioa

aztertuta, eta Bilbo, Gasteiz eta Donostiako eremu funtzionalen barruko hiri-udalerrriak soilik kontuan hartuta, errolda-sekzioaren eskalan. Harreman horretan kontuan hartu da, halaber, gabezia sozioekonomikoaren indizearen bidez neurtutako testuinguru sozioekonomikoa.

Bestalde, Bilboko berdeguneen diseinuak hiriko hainbat zerbitzu ekosistemikoren horniduran duen eragina aztertu da (temperatura murriztea (Cooling), karbono-metaketa eta oxigeno-ekoizpena), zerbitzu horiek eragina baitute pertsonen osasunean.

Euskadiko ekosistema-zerbitzuen ebaluazioa

45. KONPROMISOA. POLITIKA PUBLIKOETAN INGURUMENAREN ALDAGAIA TXERTATU

1. EKIMENA. INDARREAN DAGOEN IV. INGURUMEN ESPARRU PROGRAMA 2020 GARATU ETA EBALUATU.

2020rako Ingurumen Esparru Programako 6 Proiektu Giltzarriak (1. Administrazio eredugarria ingurumenaren aldetik. 2. Lurralde osasungarria. 3. Ingurumen-fiskalitatea. 4. Fabrikazio berdea. 5. Elikadura zirkularra. 6. Azpiegitura berdeak) bultzatzea, ingurumenaren aldagaia sailen artean integratzeko tresna gisa eta Sailen eta erakunde publikoen arteko beharrezko koordinazioaren bitartez, herritarren eginkizuna arlo honetan funtsezkoa izanik.

LURRALDE OSASUNGARRIA Proiektu GILTZARRI barruko ekimenak:

- Lurralde-plangintza eta osasuna.
- Aire eta osasuna - Airearen Kalitatea Kontrolatzeko Sarea
- Ura eta osasuna.
- Osasunaren ingurumen-determinatzaileak Euskadin.

Lurralde-plangintza eta Osasunean:

Lurralde Antolamenduaren Lerro (LAL) berriek osasuna jasotzen dituzten zeharkako gaitan. Lurralde-antolamendua eta hirigintza-plangintza, osasuna eta ingurumena aldagai-kopuru handi baten bitartez lotutako dimentsio konplexuak dira. Hirien eta bertan bizi diren pertsonen egungo arazoak, eta tartean, airearen kutsadura eta zarata-arazoak, jarduera fisikoaren gutxitzea, elikadura-ohituen aldaketa, gizarte-harremanen galera edo hiritarraren garapena landatarraren edo naturalaren aurrean, osasunean eragiten duten alderdi erabakigarriak dira eta elkarri lotuta daude.

Osasun-arloko lurralde-estrategia berrikusteko helburuak honako hauek dira:

1. Lurraldeak osasunean dituen eraginen azterketa sistematikoa bultzatu eta laguntzea, eta lurralde- eta hirigintza-plangintzan aintzat hartzea.
2. Osasun alorreko berdintasuna sustatzea, herritar guztiek komunitate-zerbitzu guztiak edukitzeko, eskuratzeko eta erabiltzeko aukera berdinak eduki ditzaten, beren generoa, adina, etnia, estatus sozioekonomikoa edo egoera funtzionala edozein izanik ere.
3. Osasun-arloko desberdintasun sozialak murriztea bizi-kalitatearen mesedetan doazen giro eta inguruneetara iristeko aukera emanez.
4. Jarduera fisikoaren, mugikortasun fisikoaren eta elikaduraren bitartez ohitura edo bizi-estilo osasungarriak sustatzea.
5. Zahartze aktiboak bizi-ohitura osasungarriagoen garapenean eta ingurune adiskidetsuago baten beharrezan duen zeregina barneratzea.

Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak (LAG)

Aire eta Osasunean:

2019an

- Airearen kalitatea neurtzeko unitate mugikor bat egiaztatu du. Jarduketa honek ENACek UNE-EN arauen arabera egiaztatutako estazio eta unitate mugikorrek izateko helburua osatzen du, beste 6 estazioekin batera, sarearen neurrien trazabilitatea eta zehaztasuna bermatzeko.
- Laborategi mugikorretan lortutako konposatu organiko lurrunkorren (KOL) datuetarako irizpideak zehazteko, datuak interpretatzeko tresnak lantzen jarraitzen da.
- Osasun Publikoko Zuzendaritzarekin batera lan egin da Zaldibarko zabortegian izandako sutearen ondorioz sortutako airearen kalitatearen eta osasunaren arazoei erantzuteko.

Gainera, 2020an Osasun Publikoko Zuzendaritzarekin batera lan egin da, Ordizian eta Zaldibian aire-giroan nikela egoteak sortzen dituen arazoei erantzuteko.

Ur eta Osasunean:

Lankidetzeta-hitzarmen bat dago Uraren Euskal Agentziaren eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren artean, kontsumo publikoko uren kalitatea eta bainu-eremuetako uren kalitatea babesteko hainbat jarduketa garatzeko. Tresna hori oso interesgarritzat jotzen da koordinazio egokia ziurtatzeko.

Bai kontsumoko uretan bai bainu-lekuetako uretan, Osasun Sailaren eta URaren informazio-sistemen integrazioan jardungo da, analisi kimikoen eta mikrobiologikoen informazioa eta emaitzak elektronikoki transferitzeko.

4. EKIMENA. INGURUMEN-KUDEAKETAKO IZAPIDEAK ETA PROZEDURAK SINPLIFIKATU ETA ARINDU.

- **INGURUNET: INGURUMENA KUDEATZEKO INFORMAZIO-SISTEMA BERRI BATEN DISEINUA ETA GARAPENA**

Administrazio-prozeduren konplexutasunak bikoizketak eta eraginkortasunik ezak sortzen ditu, bai eta oso interesgarria izan arren zuzenean erabil ezinezko informazio sakabanatua ere espedienteetan eta agirietan gordeta. Proiektu honen helburua zerbitzu publikoen kalitatea hobetzea da (erabilera-erraztasuna, epeak murriztea, eraginkortasuna, kostuak gutxitzea), ingurumen-prozedurak izapidetu behar dituzten pertsonak eta erakundeek modu sinplifikatu eta eraginkorrean egin dezaten, eta horrela, balio publikoa eman dezakeen informazioa sortu. Sistema Eusko Jaurlaritzaren zeharkako tresnetan (PLATEA, GeoEuskadi, etab.) ezarrita dago, Eusko Jaurlaritzako beste sistema batzuekin koordinatzerik egon dadin, eta bereziki, Osasun Saila garatzen ari den ingurumen-osasunari buruzko informazioaren kudeaketa-sistemarekin. Ingurumena eta Ingurumen Osasuna bezalako arloak koordinatzeko talde teknikoa osatu dugu, irtenbide bera izan dezaketen sistema bietako alderdiak eta Sail bientzat erabakiak hartzerako (politika publikoen plangintza, jarraipena eta ebaluazioa) eta ingurumenaren eta osasunaren kalitatea hobetzeko informazioa identifikatze aldera.



46. KONPROMISOA. INGURUNE NATURALAREN KALITATEA HOBETU

Hauek dira modu jarraituan egiten diren jarduerak:

- Atmosfera babesteko araudiaren -IPPC, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Bateratua- ondoriozko ekintzak bete, negutegi-efektuko gasak igortzeko eskubideen merkataritza, dagozkion baimenen ondoriozko erregimenean, nahiz eragindako industriek egindako igorpenen jarraipen, egiaztapen eta kontrolean.
- Usainei lotutako arazoak sortzen dituzten igorpen-iturriak identifikatzeko kanpaina bereziak burutu.
- Hots-kutsadura murriztu, zarata-mapak eta zarata gutxiagotuko duten ekintza-planak egin, eragindako administrazioekin lankidetzan.
- Lurzoruaren kutsadura prebenitu eta zuzentzearen alorrean ingurumen-organismoari dagozkion eta EAEko lurraldean erabilera edo jarduera berrietarako ezartzea beharrezkoak diren lanekin jarraitu.

-
- Kutsagarriak izan daitezkeen jarduerak ixteko prozesuetan zehar kontrolari arreta berezia ematea, kudeaketa desegokiaren arriskuak saihestu edo txikiagotze aldera.

1. EKIMENA. URAREN KALITATEA BERMATUKO DUEN ETA HORREN XAHUTZEARI, ESPEKULAZIOARI ETA KUTSADURARI AURRE EGINGO DION URAREN POLITIKA BULTZATU, URA URAREN EUSKAL AGENTZIAREN BIDEZ.

URaren zeregin nagusietako bat da ur-masen egoera ekologikoa kontserbatzea eta hobetzea, bi lan-ildo paralelotan.

- Alde batetik, ur-masak presio berrietatik babestea —hau da, uren egoera naturalean eragina duen edozein giza jardueratik—, horiek kontserbatzen eta ez hondatzen saiatzeko.
- Bestetik, ur-masen egoera ekologikoa hobetuko eta leheneratuko duten eta presioen eragina murriztuko duten neurriak sustatzea.

Ur-masen gaineko presioak EAEko lurralde-ereduaren isla dira. Eredu horretan, topografia malkartsua, biztanleria-dentsitate handia eta lurzuaren hiri, industria eta, neurri txikiagoan bada ere, nekazaritza eta abeltzaintzako erabilerak elkartzen dira.

Faktore-konbinazio horrek berekin dakar lurraldeko ur-masei presio oso handia egitea, eta, ondorioz, unean uneko kutsadura (hiriko eta industriako hondakin-uren isurketa, behar bezalako tratamendurik gabe) eta alterazio hidromorfologikoak (bai ingurune hidrikoaren okupazio eta alterazio fisikoa, bai ur-erazketek eragindako emari-erregimena aldatzea) eragitea.

2019an, 6.380 ikuskapen egin dira, eta horietatik 3.534 isurketekin eta abisuekin erlazionatu dira. 203 espediente izapidetzen hasi dira, besteak beste, isurketa-baimenen eskaerak, isurketa-baimenen berrikuspina (lehendik daudenak) eta titulartasun-aldaketak. Lehen aipatutako espediente motetatik, 143 ebatzi dira. Gainera, 159 kontsulta hasi dira, eta partikularren, administrazioen edo enpresen 86 kontsultari erantzun zaie, lehen aipatutako eremuetan egin beharreko jarduketei dagokienez.

Isurketen erroldaren arabera, 2.502 isurketa-baimen ingururen jarraipena egin da, HUA nagusien ustiapen-txostenak egin dira, bereziki 2.000 biztanle baliokidetik gorako aglomerazioetan, eta isurketa-gunerik gatazkatsuenen jarraipena egin da, jabari publikoan izan dezaketen eraginagatik.

Bestalde, eta isurketen arloarekin lotuta, partikularren 265 salaketa jaso dira guztira, baimenen, arau-hausteen eta abarren baldintzak bete ez izanaren aukerarekin lotuta.

Zehapen-espedientea hasteko 112 proposamen hasi dira. Azkenik, 130 zehapen-espediente hasi dira, isurketen arloan indarrean dagoen legedia ez betetzearen ondorioz.

Ingurune hidrikoaren babesa

UBEGI Euskal Autonomia Erkidegoko ur-masen (ibaiak, urtegiak, lakuak, hezeguneak, trantsizioko urak, kostaldeko urak eta lurpeko urak) egoerari buruzko informazioa eskuratzeko sistema zentralizatua da.

UBEGIk Uraren Euskal Agentziaren jarraipen-sareek sortutako informaziorako sarbidea ematen du gaur egun. Etorkizunean, Euskal Autonomia Erkidegoan uraren kudeaketan inplikaturik dauden beste erakunde batzuek sortutako ingurune hidrikoaren egoerari buruzko informazioa integratu nahi du.

UBEGIk adierazle fisiko-kimiko, biologiko eta hidromorfologikoei lotutako emaitza analitikoak kontsultatzeko aukera ematen du, bisore geografiko baten laguntzarekin eta kontrol-estazioak bilatzeko eta hautatzeko tresnekin.

UBEGI. EAEko ur-masen egoerari buruzko informazioa

2. EKIMENA. 2015-2021 PLAN HIDROLOGIKOA ETA 2015-2021 UHOLDE-ARRISKUA KUDEATZEKO PLANA BERRIKUSI.

• KANTAURI EKIALDEKO DEMARKAZIO HIDROGRAFIKOAREN PLAN HIDROLOGIKOA (2021-2027) BERRIKUSTEA

Garatzen ari diren etapak:

- **Plangintza hidrologikoko prozesuaren programa, egutegia, demarkazioari buruzko azterketa orokorra eta kontsulta-formulak (Hasierako dokumentuak):** Lehen etapa honetan, hasierako dokumentuek plangintza-prozesuak berak jarraituko dituen ezaugarrien eta parte hartzeko mekanismoen berri ematen dute, eta demarkazio hidrografikoaren ezaugarrien deskribapen orokorra jasotzen dute. Memoria 2019ko ekainean argitaratu zen.
- **Gai garrantzitsuen eskema:** bigarren etapa Plan Hidrologikoa egiteko jarraibideen dokumentua da. Uren kudeaketaren arloan dauden arazo nagusiak identifikatzen dira, bai eta arazo horiek konpontzeko eta aurreikusitako ingurumen-helburuak lortzeko jarduketara-estrategiak eta alternatibak ere. 2019ko irailtik kontsulta publiko fasean dago.

Giza osasunean eragin negatiboa izan dezaketen hainbat gai identifikatu dira:

- Espezie aloktono inbaditzaileak.
- Klima-aldaketaren aurreikuspenetara egokitze.
- Uholdeak.
- Lehortekak.
- Kontrako beste fenomeno batzuk (kutsadura-gertaerak).

Administrazioen arteko koordinazioak uren eta osasunaren babesaren arloko politiken arteko koordinazioaren beharra jasotzen du, biztanleriarentzat egon daitezkeen osasun-arriskuak modu global eta eraginkorragoan identifikatu ahal izateko.

Jakintza hobekuntzak egoera kimikoaren ebaluazioan kontrolatu beharreko substantzia berriak barne hartzen ditu, bai eta horien ondorio ekotoxikologikoetan eta giza osasunean dituen ondorioetan sakontzea ere. Era berean, azpimarratzen da garrantzitsua dela jarraipen-programetatik sortutako ezagutza integratzea. Programa horiek hainbat politika sektorialetan (osasuna, ingurune naturala, hornidura, saneamendua) eskumena duten beste administrazio batzuek ematen dituzten ur-ingurune informatioekin osatzen dira, eta horien artean daude gobernu autonomoak, foru aldundiak, partzuergoak eta mankomunitateak.

Hirugarren etapa Plan Hidrologikoak bera egitea da, gaitz garrantzitsuen eskemaren ondorioetan oinarrituta eta Plangintza Hidrologikoaren Erregelamenduak ezarritako edukiak garatuta.

Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoa (2021-2027) berrikustea

• KANTAURI EKIALDEKO DEMARKAZIO HIDROGRAFIKOAREN UHOLDE ARRISKUA KUDEATZEKO PLANA 2015-2021

Uholde Arriskua Kudeatzeko Planen helburu nagusia da uholdeek giza osasunean, ingurumenean, kultura-ondarean, jarduera ekonomikoan eta azpiegituretan izan ditzaketen ondorio kaltegarriak murrizteko jarduera ordenatu eta lehenetsien multzo bat definitzea eta justifikatzea. Ahal den neurrian, arriskua murriztea lortu nahi dute, giza osasunerako, jarduera ekonomikoetarako, kultura-ondarerako eta urpean gera daitezkeen eremuetako ingurumenerako arriskugarritasuna murriztuz.

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2007ko urriaren 23ko 2007/60/EE Zuzentaraua, uholde-arriskuak ebaluatzeari eta kudeatzeari buruzkoa,

ezartzeko prozesua 2016an amaitu zen, 2015-2021 aldirako Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Uholde Arriskua Kudeatzeko Plana onartuta. Gaur egun, aurrera egiten ari da bigarren zikloaren lehen 2 faseekin: 2021-2027.

- Uholde-arriskuaren aurretiazko ebaluazioa (UAAE). 2019ko martxoan, 'Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Atariko Ebaluazioa EAEko eskumen autonomikoaren eremuan (bigarren zikloa)' dokumentua onartu zen.
- Arriskugarritasunari eta arriskuari buruzko mapak. Kontsulta publikoaren lehen fasea 2019ko abuztuan egin zen, eta bigarren fasea, urrian.

URAk iragarpen eta alerta hidrologikoko sistema bat ere badu.



Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Uholde Arriskua Kudeatzeko Plana 2015-2021

EAEko uholde-arriskuaren ebaluazioa eta kudeaketa

3. EKIMENA. URAHORNITZEKO, SANEATZEKO ETA ARAZTEKO AZPIEGITURA HIDRAULIKOAK GARATU ETA GAUZATU, DAGOEN PLANGINTZAREN ARABERA.

URAk 2019an sinatutako hitzarmenak:

- BILBAO BIZKAIA UR PARTZUERGOA: UR-HORNIKETARA BIDERATUTAKO UR-APROBETXAMENDUEN ADMINISTRAZIO-ERREGULARIZAZIOA (V. FASEA).
- AÑARBEEKO URAK: AGINAGAKO (USURBIL) SANEAMENDUAREN PROIEKTU BERRIA. 1 ETA 2 FASEAK.



Uraren Euskal Agentziak sinatutako hitzarmenak

4. EKIMENA. AIREAREN KALITATEA HOBETZEN JARRAITU, OSASUNAREN MUNDU ERAKUNDEAK (OME) EMANDAKO GOMENDIOEI JARRAITUZ.

EAEko Airearen Kalitatea Kontrolatzeko Sarearen etengabeko hobekuntza eta mantentzea, EAEko airearen kalitateari buruzko datuak ustiatzea ahalbidetuko duen sare teknologiko aurreratua izateko. Horrek, arlo honetan erabakiak hartzen eta gerta daitezkeen arazo zehatzen arabera kontrol-kanpainak egiten lagunduko du.

Kutsadura-indizeak egunero erregistratzen ditu Sareak, eta Europako Ingurumen Agentziak zehaztutako parametroetara egokituta daude.

Sarean, ozono troposferikoaren eguneroko jarraipena egiten da udan (ekainaren 1etik urriaren 1era). Arnasten dugun airean dago, eta giza osasunean kalteak eragin ditzake, izaera oxidatzaile handia baitu.

Airearen Kalitatea Kontrolatzeko Sarea

Airearen kalitatearen mapak udalerrien arabera



Airearen kalitateari buruzko urteko txostenak

Euskadiko airearen kalitatearen ebaluazioa

Ozono troposferikoaren zaintza

• INGURUMEN ARLOKO IKUSKARITZA ETA KONTROLERAKO PLANA 2019-2026

2002-2020 aldirako Garapen Jasangarriaren Euskal Ingurumen Estrategian ezarritakoarekin bat etorruta, Ingurumen arloko Ikuskaritza eta Kontrolerako Planaren xedea da, Euskadiko ingurumena garbi eta osasungarri mantentzen laguntzea, bai eta airearen, uraren eta lurzoruaren kalitatea eta hondakinen kudeaketa hobetzen laguntzea ere, horretarako hondakinen balorizazioa sustatuz. Hori lortzeko EAEn egiten ari diren jarduerak kontrolatu eta ikuskatzen dira.

Urtero argitaratzen dira ingurumen-ikuskaritzako programak eta memoriak. Ingurumena ikuskatzeko txostenak ere publikoak dira. 2019an, 981 ikuskapen egin ziren 506 jarduerarekin lotuta. Ondorio orokor gisa, nabarmentzekoa da ia arlo guztietan etengabe hobera egin dela denboran zehar, batez ere enpresen betetze-maila handitu delako eta enpresa kritikoenen arriskua murriztu delako, ingurumen-kudeaketa hobetu delako eta ez-betetzeak gutxitu direlako.



Ingurumen arloko Ikuskaritza eta Kontrolerako Plana

5. EKIMENA. LURZORU KUTSATUAK BABESTEKO PLANA EGIN, ETA LURZORU HORIEK IKERTZEKO ETA BERRONERATZEKO PROIEKTUAK BERARIAZ SUSTATU.

• LURZORUA EZ KUTSATZEKO ETA KUTSATUTAKOIA GARBITZEKO 4/2015 LEGEA GARATZEKO DEKRETUA

Lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeko ekainaren 25eko 4/2015 Legeak ingurumen-eremu hori arautzen du, Euskal Autonomia Erkidegoko lurzorua babesteko, jatorri antropikoko ekintzen ondoriozko ezaugarri kimikoen aldaketa prebenituta, eta, aldi berean, lurralde-eremu

horretan dauden lurzoru kutsatuei eta eraldatuei aplikatu beharreko araubide juridikoa ezarrita, ingurumena eta osasuna zaintze aldera.

2020ko urtarrilean, **abenduaren 26ko 209/2019 Dekretua, ekainaren 25eko 4/2015 Legea garatzen duena** argitaratu zen. Lege horrek lurzoruaren kalitatearen arloko prozedurak arautzen dituzten arauak eta lurzoruaren kalitatea ezagutzeko eta kontrolatzeko tresnen edukia eta nondik norakoak ezartzen ditu.

ⁱ 2020an, Ingurumen Sailburuordetzak Klima 2050 Estrategia aldatzeko prozesuari ekin zion, bere helburua UNFCCCren COP25ean mundu mailan adostutako nahiarekin bat eginez; horren ildo nagusiak erregelamendu-proposamenaren bidez onartu dira Europan.